

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko uztaila

## Aurkibidea

1. EAEko BPGaren hazkundera

2. IPRI

3. Familiaren konfiantza

4. PMI konposatua

5. Ekonomia sentimendua

6. Munduko Bankuaren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2021ean.

Industriak aurtengo hazkundera lideratuko du eta zerbitzuek datorren urtekoa.

### 2. Industriaren prezioak %6,0 igo ziren maiatzean, urte arteko tasan.

Garestitze horren atzean, energiaren salneurrien goranzko joera dago.

### 3. Konfiantza EAEko etxeetara itzuli da.

Ekonomia orokorrari eta enpleguari buruzko igurikimenak nabarmen hobetu dira.

### 4. Baikortasuna finkatu egin da Europako enpresetan.

Euroguneko PMI konposatuak azken hamabost urteko daturik gorena jaso du.

### 5. Sentimendu ekonomikoa bere balio gorenetara hurbildu zen ekainean.

Industriak inoizko daturik onena lortu du eta zerbitzuak azkar hobetzen ari dira.

### 6. Txertatzeak ekonomia jarduera bultzatuko duela aurreikusten da.

Munduko Bankuaren arabera, munduko ekonomia %5,6 haziko da aurten.

### 7. Hilabeteko laburpena.

Susperraldia bai, baina oraindik partziala.




# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

## EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2021ean

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

**BPGA 2021**  
**%6,7**




COVID-19aren pandemiaren bilakaera, txertaketa kanpainak, aldaera berrien hedapena eta Europako funtsen kudeaketa dira ekonomiaren etorkizuneko joera markatzen duten faktoreak. Arriskuak beheranzkoak izan daitezke, baina baita goranzkoak ere, eta, beraz, ziurgabetasuna handia dago oraindik munduko taula makroekonomikoetan.

Eskura dagoen koiunturako azken informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin du EAEko ekonomiaren koadro makroekonomikoa

2021-2022 aldirako. Berrikuspen horren arabera, 2021ean EAEko BPGA %6,7 haziko da, eta 2022an hazkunde tasa %5,7 izango da. Erregistro horiek, maila agregatuan, duela hiru hilabete argitaratutakoen berdina dira; hala ere, atalez atal, aldaketa txikiak daude. Barne eskariak jarraituko du izaten EAEko ekonomiaren hazkundearen eragile nagusia, eta kontsumo pribatua hazi egingo da geroraturako eskariaren xurgatze efektuaren ondorioz. Bestalde, inbertsioa kanpoko testuinguru hobek eta baikortasun handiagoak bultzatuko dute.


### AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkundeari, bai 2021ean bai 2022an. Industria sektorea izango da hazkundearen eta susperraldi ekonomikoaren buru 2021ean. Hurrengo urtean, zerbitzuen sektoreak egingo dio ekarpenik handiena hazkunde ekonomikoari.

BPGaren igoerak eragin handia izango du enpleguan. Lanaldi osoko lanpostuei dagokienez, %4,9ko hazkundera aurreikusten da 2021ean. Halaber, 2022an lanpostuak berreskuratzea lortuko da, %3,2ko tasarekin. Lana duten pertsonen dagokienez, enpleguaren igoerak 8.000 pertsona ingururi egingo dio mesede aurten, eta 11.000 ingururi, berriz, datorren urtean. Langabezia tasa %10,3ra arte jaitsiko da 2021ean, eta behera egingo jarraituko du 2022an ere, %9,6ko batez besteko tasara iritsi arte.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.




# INDUSTRIAREN PREZIOAK

## Industriaren prezioak %6,0 igo ziren maiatzean urte arteko tasan

INDUSTRIA PREZIOAK GUZTIRA  
Urte arteko aldakuntza tasa

IPRI OROKORRA:  
MAIATZEKO URTE ARTEKO TASA  
**%6,0**




Industria prezioek iazko amaieran hasi zuten gorakadari jarraipena eman zioten, eta maiatzean %6,0 igo ziren, 2011tik izandako gorakadarik handiena baita. Igoera horren atzean energia egon zen batez ere, aurreko urteko azken hilabeteetako aldakuntza tasa negatiboak alde batera utzi baitzituen, energia elektrikoaren ekoizpena, garraioa eta banaketa, eta

petrolioaren fintzea garestitu ondoren. Zehazki, lehengai hori 2019tik ikusi gabeko mailan kokatu zen ekainean zehar, upeleko 76 dolarreko balioa gainditu baitzuen; izan ere, 2021eko bigarren erdialdeko hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspen onek indartu egin zuten petrolio gehiago eskatzeko itxaropena, eta, horrela, prezioa igo egin zen.

ENERGIA  
Urte arteko aldakuntza tasa


IPRI ENERGIA:  
MAIATZEKO URTE ARTEKO TASA  
**%5,5**



Era berean, bitarteko ondasunek ere gorakada nabarmenak jaso zituzten, lehengaien merkatuen prezioek, batez ere metalek eta produktu informatiko eta elektronikoen prezioek, eragindako goranzko inflazio presioen ondorioz. Aitzitik, ekipamendurako ondasunek balio negatiboetan jarraitu zuten, garraio materialaren prezioak behera egin zuelako, eta kontsumoko ondasunak ez ziren aldatu, baina balio altuetan jarraitu zuten, elikagaien prezioek eraginda.


### KONTSUMO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### KONTSUMO ONDASUN IRAUNKORRAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### KONTSUMO ONDASUN EZ IRAUNKORRAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### EKIPO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa



### BITARTEKO ONDASUNAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

## Konfiantza EAEko etxeetara itzuli da

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2021EKO II HIRUHILEKOA

+2




Laboral Kutxak EAEko familien konfiantzaz egin duen indizeak nabarmen egin zuen hobera aurtengo bigarren hiruhilekoan, eta maila baikorretara iritsi zen, 2019ko lehen seiuhilekoan, EAEko familiek konfiantza galdu baino lehen, jaso zirenen antzekoak. Hasiera batean, adierazlearen beherakada ekonomia orokorrari, etxeko ekonomiari eta enpleguari buruzko igurikimenez okerrera egin izanaren ondorioa izan zen, Covid-19ren intzidentziak gora egin ahala, beherakada areagotu egin baitzen.

Txertaketa abenduan hasi zen, baina martxo eta apirila bitartean areagotu da. Txertoen kanpaina, kutsatzeen kontrola eta intzidentziaren jaitziera funtsezkoak izan dira duela zazpi hiruhileko hasitako narriadura ibilbidearekin hausteko eta EAEko familiek baikortasuna berreskuratzeko. Zehatzago esanda, aurtengo bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza +2 puntukoa izan zen, inguruko ekonomia nagusietan oraindik nolabaiteko ezkortasuna hautematen zen bitartean.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2019	2020	2020				2021	
			I	II	III	IV	I	II
<b>Euskadi</b>	-2	-22	-1	-24	-30	-33	-32	+2
<b>Europar Batasuna</b>	-6	-15	-7	-21	-15	-17	-15	-8
Frantzia	-9	-13	-8	-18	-12	-14	-13	-7
Alemania	-2	-10	-3	-16	-9	-11	-11	-6
Espainia	-6	-23	-10	-28	-27	-26	-22	-11

## EKONOMIA OROKORRA




EAEko familien konfiantzaren hobekuntza horren oinarria da ekonomia orokorrari (+2) eta enpleguari buruzko igurikimenak izugarri irauli direla eta nabarmen egin dutela gora: +50 puntu eta +58 puntu, hurrenez hurren. Aurrezkiaren igurikimenak ere (+4) hobera doaz, baina neurri txikiagoan (10 puntu), nahiz eta beherakada txikiena izan zuten indizeetako ere izan zen. Soilik etxeko ekonomiari buruzko igurikimenak (-2) mantentzen dira apur bat ezkorrak diren mailan, baina 2019ko hirugarren hiruhilekoko erregistroa berdintzen du.

## FAMILIAREN EKONOMIA




Halaber, erosketa unearen balorazioa hobetu egin da, +2 puntura iritsi arte. 2017ko lehen hiruhilekotik negatiboa ez den lehen emaitza izan da (0 puntu orduan), eta datu positibo bakarra 2014ko lehen hiruhilekotik. Ildo horretan, erosketa handiak egiteko igurikimeneen indizeak 10 puntu berreskuratu ditu eta +1ean kokatu da, datorren urtean etxebizitza berri bat erosteko probabilitateak bulztatuta; ibilgailu berri bat erosteko asmoak, berriz, beherantz jarraitzen du.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral kutxa.

## Baikortasuna finkatu egin da Europako enpresetan


Euroguneko PMI konposatua 59,2 mailara igo zen ekainean, azken hamabost urteetako baliorik handiena baita. Baikortasunaren itzulera txertatze masiboaren eta pandemia kontrolatzeko hartutako neurrien erlaxazioaren eskutik etorri da. Izan ere, otsailean (48,8) oraindik uzkuertze eremuan egotetik, lau hilabetetan maximo erlatiboko zifrak lortzera igaro da adierazle hori. Ekono-

miaren bi sektore nagusiek dagoeneko parte hartzen dute sentimendu baikor horretan. Alde bate-tik, badirudi manufakturrek goia jo dutela eta aurreko datua (63,1) errepikatu dute ekainean. Aitzitik, zerbitzuek ia hiru puntu egin dute hobera hilabete bakar batean, 58,0ra iritsi arte, azken hiru urteetako baliorik onena delarik.


### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2021EKO EKAINA


59,2



### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA






### PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




### PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Europako herrialdeen artean, joera orokorra da une ekonomikoaren pertzepzioa nabarmen hobetu izana. Esate baterako, Alemaniako indizea 60,4ra iritsi da ekainean. 2011. urtera jo behar da indizea halako maila altu batean ikusteko. Frantzian, lortutako maila 57,1 da, eta Erresuma Batukoa, berriz, 61,7koa, kasu horretan jaitziera txiki baten ondoren.

Europatik kanpo, AEBek goia jo zuten maiatzean (68,7), baina ekainean beherakada handia izan zuen (63,9), nahiz eta oraindik ere baikortasun esanguratsua erakusten duen balioa izan. Egoera horren salbuespena Japonia da (47,8), ez baita hazkunde eremura igaro, zerbitzuen sektoreak kaltetuta.


### PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



### PMI KONPOSATUA. AEB



### PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit.




# EKONOMIA SENTIMENDUA

## Sentimendu ekonomikoa bere balio gorenetara hurbildu zen ekainean

SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROGUNEA

EKAINEN DATUA

117,9




Europako herrialdeetako sentimendu ekonomikoak hobera egiten jarraitzen du, erritmo onean. Izan ere, 2000ko maiatzetik izandako baliorik gorenak lortu dira ekainean, hura serie historiko osoaren unerik baikorrena izan baitzen. Zehazki, ekainean euroguneak 117,9 puntuko balioa jaso zuen, maiatzean baino 3,4 puntu gehiago, eta Europar Batasunak 117,0 puntu izan zituen, aurreko balioa baino hiru puntu gehiago. Maila hain altu horiek oso denbora tarte laburrean lortu dira, martxoan bi eremuak batez besteko historikotik hurbil zeudelako (100).

Sentimendu ekonomikoa osatzen duten sektoreen artean, industriak bizi duen baikortasuna nabarmentzen da, serie historiko osoko baliorik altuenak lortu baititu orain. Gainerako atalen egoera ere ona da, eta guztietan nabarmen gaitzen dira azken hogeitazko batez besteko balioak. Baikortasun hori lan merkatura lekualdatzen da partzialki, eta enpleguari buruzko igurikimenak puntu bat baino gehiago hobetu dira. Hala ere, azken adierazle hori urrun dago oraindik 2018an ezagutu zuen une onetik.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR  
BATASUNA

EKAINEN DATUA

117,0




## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Alemania da adierazle horretan emaitzarik onena lortu duen herrialdeetako bat, eta errekor historikoa ezarri du, 117,2 puntura iritsi baita, aurreko hilean baino bost puntu gehiago direlarik, industriak bizi duen egoera onari eta zerbitzuek otsailetik izan duten susperraldi handiari esker. Frantziak emaitza apalagoa lortu du (112,2), maiatzarekin alderatuta puntu bat pasatxoko hobekuntza izan baitu bakarrik eta bere emaitzarik onenetik urrun (120,9 jaso zuen 2000ko urrian). Alemanian ez bezala, gure auzoko herrialdean industriak eta eraikuntzak atzerapausoa eman dute eta bi puntu inguru egin dute okerrera, nahiz eta zerbitzuak nabarmen hobetu diren.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italia egoera onean kokatu da eta 117,9ko balioa eskuratu du ekainean, maiatzeko datua baino bi puntu gehiago direla. Atal guztiek baikortasun handia erakutsi dute, nahiz eta eraikuntzak apur bat okerrera egin duen, balio maximoetatik oso hurbil egon ondoren. Azkenik, Espainia da goranzko joera horren salbuespena eta puntu bat baino pixka bat gehiago galdu du ekainean, 107,2ra iritsi arte. Industriak lau puntu egin du okerrera, baina egoera onean jarraitzen du, eta zerbitzuak zein txikizkako merkataritza azkar hobetu dira. Zalantza dago kontsumitzailearen konfiantzarekin, apur bat okerrera egin duelako ekainean.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europako Batzordea.

# MUNDUKO BANKUAREN AURREIKUSPENAK

## Txertatzeak ekonomia jarduera bultzatuko duela aurreikusten da

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Munduko Bankuaren azken txostenaren arabera, ekainean argitaratua, ekonomia globala %5,6 haziko da 2021ean. Hazkunde hori ekonomia nagusietako batzuen dinamismo handiaren ondorio izango da, hala nola Txinarena eta AEBena. Hala ere, garatzeko bidean dauden eta azalera ari diren herrialde askok Covid-19aren pandemiaren ondorioen eta txertaketaren atzerapenaren zamarekin jarraituko dute.


Dena dela, eta ekonomiaren susperraldia gorabehera, munduko BPGaren mailak pandemiaren aurretik zeudenak baino txikiagoak izango dira.

### MUNDUKO BANKUAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>2,5</b>	<b>-3,5</b>	<b>5,6</b>	<b>4,3</b>	<b>3,1</b>
<b>Ekonomia aurreratutak</b>	<b>1,6</b>	<b>-4,7</b>	<b>5,4</b>	<b>4,0</b>	<b>2,2</b>
AEB	2,2	-3,5	6,8	4,2	2,3
Eurogunea	1,3	-6,6	4,2	4,4	2,4
Japonia	0,0	-4,7	2,9	2,6	1,0
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>3,8</b>	<b>-1,7</b>	<b>6,0</b>	<b>4,7</b>	<b>4,4</b>
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	5,8	1,2	7,7	5,3	5,2
Txina	6,0	2,3	8,5	5,4	5,3
Europa eta Erdialdeko Asia	2,7	-2,1	3,9	3,9	3,5
Errusia	2,0	-3,0	3,2	3,2	2,3
Amerika Latinoa	0,9	-6,5	5,2	2,9	2,5
Brasil	1,4	-4,1	4,5	2,5	2,3
Hegoaldeko Asia	4,4	-5,4	6,8	6,8	5,2
India	4,0	-7,3	8,3	7,5	6,5

## EKONOMIA AURRERATUEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

## GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

## AEBETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

## EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Jarduera ekonomikoaren susperraldiari lotutako munduko inflazioaren gorakadari dagokionez, Munduko Bankuak uste du oso litekeena dela prezioen mailak gora egiten jarraitzea 2021. urte osoan, nahiz eta ekonomia aurreratuen inflazio maila objektiboen barruan mantentzea aurreikusten duen. Hala ere, garapen bidean dauden herrialdeetan goranzko joera hori jadanik metatutako egiturazko arazoei gehitu daiteke.

Munduko Bankutik pandemiak eragin duen pobrezia eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko deia egin dute. Epe laburrean, txertoen banaketa bizkortzeko eta zorra arintzeko politikak ezarri behar dira. Epe ertainean, helburuak hazkunde ekonomiko ekologiko, erresiliente eta inklusiboetan oinarritu beharko lirateke.

## TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Munduko Bankua.



## Susperraldia bai, baina oraindik partziala

Ekaineko laburpena euroguneko PMI konposatuaren flasharekin hasten da, ekainari dagokiona. Horrek **bere baikortasuneko gorakadari jarraitzen dio 59,2ra arte, azken hamabost urteetako baliorik handiena baita**. Azpimarratu behar da adierazle horrek mugimendu txikiak izaten dituela hilabete batetik bestera, baina lau hilabeteko epe laburrean uzurtze eremuan, hau da, 50etik behera, egotetik maximo erlatiboko posizio batera egotera iritsi da. Argi eta garbi, txertaketa kanpaina masiboaren ondorioa da, enpresei baikortasuna itzuli baitie, bai manufakturei bai zerbitzuetakoei.

Hilabete honetan argitaratutako albiste ekonomiko esanguratsuenetako bat nahiko oharkabean igaro da komunikabideetan. INEk 2019. urteari buruz argitaratu duen soldaten egitura da. Estatistika horren alderdi bat nabarmendu behar da ohar labur honetan: urte horretan, soldata arrakala murriztu egin zen. Hain zuzen ere, **gizon baten eta emakume baten batez besteko soldataren arteko aldea 2018an 7.200 eurokoa izatetik 2019an 6.300 eurokoa izatera igaro da**. Izan ere, 2008tik, hau da, estatistika hau hasi zenetik, erregistratu den alderik txikiena da. Ziurrenik, arrazoi bat baino gehiago egongo da horretarako, baina badirudi soldata arrakalaren murrizketa hori urte horretan adostu zen lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoera handiaren ondorio zuzena dela: 735,90 eurotik hilean 900,00 eurora. Igoera horrek bereziki emakumeei egin die mesede, eta hori estatistikaren zenbakietan nabari da. Aurrekoari lotutako beste datu esanguratsu bat da 10 pertzentilak, hau da, soldata txikiena duten soldatapeko pertsonen %10ak, ez dituela kobratzen urteko LGSari dagozkion 12.600 euroak.

EAEko koiunturari dagokionez, 2021-2022 aldiko eszenategi makroekonomikoa eguneratu dela adierazi behar dugu, eta, hazkunde zifra globaletan aldaketarik ez badago ere, osaeran aldaketa batzuk daudela. Hala, EAEko BPG %6,7 handituko da aurten eta %5,7, berriz, datorren urtean, baina egungo eszenategian, barne eskaria zertxobait handiagoa da kontsumo pribatuaren dinamismo handiagoari esker. Halaber, **industriak eta eraikuntzak hasieran aurreikusitakoa baino igoera handiagoa lortuko dute aurten**, zerbitzuak gutxiago haziko badira ere.

Interesgarriak dira INEk argitaratutako industriaren eta zerbitzuen apirileko negozio zifrak. Biek ala biek urte arteko hazkunde handia izan dute, ezohikoa, 2020ko apirilarekin alderatzen direlako, hura jarduera gutxikoa izan baitzen. Horregatik, garrantzitsua da alderaketa 2019ko apirilarekin egitea, eta konparazio horretan iragana da garaile, gaurkotasunaren aurrean. **Bi sektore nagusiek ez dute oraindik lortu pandemiaren aurreko balioak berreskuratzea**. Pentsa litekeenaren kontra, zerbitzuak dira hori lortzetik gertuen daudenak.

Aski ezaguna da turismoarekin lotutako jarduerak oso kaltetuak izan direla mugikortasunaren murrizketen ondorioz. Nahiz eta neurri horiek leuntzen ari diren eta sektorea suspertzen ari den, kontuan hartu behar da oso maila baxuetatik abiatzen dela. Maiatzean hoteletan igarotako gaualdien kasuan, 2020ko 30.000 gauetatik 2021eko 209.000 gauetara igaro da. Hala ere, 2019ko zifra 574.000 gaualdikoa izan zen. Beraz, **sektore horren susperraldia pandemiaren aurretik ohikoa zenaren herena baino gehixeagokoa bakarrik da**.

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>2,2</b>	<b>-9,5</b>	<b>-3,2</b>	<b>-19,5</b>	<b>-7,5</b>	<b>-7,6</b>	<b>-2,9</b>
Barneko azken kontsumoa	1,9	-7,5	-3,0	-15,4	-5,9	-5,7	-2,6
Familien kontsumoa	1,8	-10,7	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1	-3,7
Administrazioaren kontsumoa	2,2	4,5	4,1	3,0	3,6	7,2	1,6
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,6	-3,6	-23,0	-11,4	-8,4	-1,3
Barne eskaria	2,2	-8,5	-3,1	-17,2	-7,2	-6,4	-2,3
Esportazioak	0,4	-17,1	-7,5	-30,1	-15,5	-14,8	-2,4
Inportazioak	0,4	-15,3	-7,2	-26,4	-14,8	-12,7	-1,3
Lehen arloa	3,2	-9,3	3,5	-6,1	-7,2	-26,3	-7,1
Industria eta energia	1,3	-11,8	-3,6	-26,7	-9,5	-7,2	-1,1
Eraikuntza	3,4	-9,5	-2,7	-17,9	-9,3	-8,2	-2,4
Zerbitzuak	2,5	-8,5	-2,8	-17,5	-6,5	-7,1	-3,5
Balio erantsi gordina	2,3	-9,3	-3,0	-19,6	-7,4	-7,4	-2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	-10,4	-5,1	-18,4	-8,5	-9,6	-3,0
Enplegua	1,5	-8,1	-2,8	-17,2	-6,2	-6,3	-2,1

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021			2021	2022
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>18,1</b>	<b>6,0</b>	<b>7,4</b>	<b>6,7</b>	<b>5,7</b>
Barneko azken kontsumoa	15,6	5,3	7,2	6,1	5,0
Familien kontsumoa	19,4	6,1	8,7	7,1	6,0
Administrazioaren kontsumoa	4,5	2,4	2,4	2,7	1,8
Kapital eraketa gordina	23,9	8,3	7,5	8,9	5,8
Barne eskariaren ekarpena	18,5	6,2	7,6	6,9	5,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,2	-0,2	0,3
Lehen arloa	8,5	8,2	10,6	4,6	8,4
Industria	29,1	7,4	7,1	9,5	5,0
Eraikuntza	16,8	5,3	6,7	6,2	5,1
Zerbitzuak	15,7	5,8	7,6	6,0	5,9
Balio erantsi gordina	18,6	6,1	7,5	6,8	5,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	13,3	5,1	7,3	5,4	5,9
Lanaldi osoko lanpostuak	15,0	3,4	4,2	4,9	3,2
Landunak (BJA)	2,3	2,4	1,0	0,8	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	CEPREDE	5,7	5,6
Hispalink (BEGren aldak.)	7,0	5,0	BBVA	5,5	7,5
Laboral Kutxa	7,0	—	Funcas	5,5	—

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>2,0</b>	<b>-10,8</b>	<b>-4,3</b>	<b>-21,6</b>	<b>-8,6</b>	<b>-8,9</b>	<b>-4,2</b>
Kontsumo pribatua	0,9	-12,4	-6,1	-24,7	-9,3	-9,4	-3,5
Kontsumo publikoa	2,3	3,8	3,5	3,3	4,0	4,5	3,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4	-5,1	-24,3	-9,0	-7,2	-3,2
- Aktibo finko materialak	2,7	-13,3	-6,8	-27,9	-10,0	-8,3	-3,9
- Eraikuntzan	1,6	-14,0	-6,3	-25,4	-12,5	-11,5	-10,7
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,0	-8,0	-33,3	-6,9	-4,2	6,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,7	3,6	-5,5	-3,7	-1,2	0,4
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-8,8	-4,0	-18,4	-6,7	-6,2	-2,2
Esportazioak	2,3	-20,2	-5,8	-38,7	-19,8	-16,3	-10,7
Inportazioak	0,7	-15,8	-5,3	-32,6	-15,7	-9,4	-5,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	Intermoney	6,2	5,2
Axesor	5,2	5,9	Mapfre Economics	6,0	5,0
BBVA	5,5	7,0	Oxford Economics	6,0	6,5
CaixaBank	6,0	4,4	Repsol	5,7	5,2
Cámara de Comercio España	5,9	5,4	Santander	5,6	7,0
Cemex	5,5	7,0	Metyis	5,5	6,0
CEEM-URJC	5,9	5,5	Universidad Loyola Andalucía	5,8	5,3
CEPREDE-UAM	6,4	4,8	<b>Consenso (batez bestea)</b>	<b>5,8</b>	<b>5,7</b>
CEOE	5,4	6,0	Gobernua (2021-04)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	6,3	4,6	Espainiako Bankua (2021-03)	6,0	5,3
FUNCAS	6,0	6,2	Europar Batzordea (2021-05)	5,9	6,8
ICAE-UCM	5,6	5,8	NDF (2021-04)	6,4	4,7
IEE	4,8	5,7	Consensus Forecast (2021-06)	5,7	5,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.



# ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
AEB	2,2	-3,5	0,3	-9,0	-2,8	-2,4	0,4
Txina	6,1	2,0	-6,8	3,2	4,9	6,5	18,3
Japonia	0,3	-4,7	-2,2	-10,2	-5,5	-1,0	-1,5
Kanada	1,9	-5,3	-0,4	-12,6	-5,1	-3,1	0,3
Europar Batasuna	1,6	-6,1	-2,7	-13,8	-4,0	-4,4	-1,2
Eurogunea	1,3	-6,5	-3,3	-14,6	-4,1	-4,7	-1,3
Alemania	0,6	-4,8	-2,2	-11,2	-3,8	-3,3	-3,1
Frantzia	1,8	-7,9	-5,5	-18,4	-3,5	-4,6	1,2
Erresuma Batua	1,4	-9,8	-2,2	-21,4	-8,5	-7,3	-6,1
Italia	0,3	-8,9	-5,8	-18,1	-5,2	-6,5	-0,8
Herbehereak	1,7	-3,7	-0,4	-9,1	-2,4	-3,0	-1,9

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2021EKO EKAINA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	6,7	4,1	3,5	2,6	5,5	4,2
Japonia	2,6	2,8	0,0	0,5	2,8	2,7
Kanada	6,1	4,1	2,6	2,3	7,6	6,3
Europar Batasuna	4,2	4,2	1,9	1,5	—	—
Eurogunea	4,4	4,4	1,8	1,4	8,4	8,1
Alemania	3,3	4,2	2,5	1,7	5,9	5,5
Frantzia	5,5	3,9	1,4	1,2	8,6	8,6
Erresuma Batua	6,6	5,3	1,7	2,3	5,4	5,4
Italia	4,5	4,2	1,2	1,1	10,4	10,0
Espainia	5,7	5,7	1,7	1,2	—	—
Herbehereak	2,8	3,2	1,9	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.